



Emmanuel Carrère, frantziako idazlea

Fikzioan bizi

Denetarik idatzi du Emmanuel Carrèrek, gehiago idatziko ez zuela noizbait esan bazuen ere. Parisen, 1957an jaio eta bertan diplomatu zen Institut d'études politiques erakundearen. Zinemagintzara hurbildu da, aldizkarietan hasieran, kritikaren bitartez; geroago gidialari zein zuzendari, askotan bere liburuen moldaketak eginez. Gutxi da, halere, Carrèreri buruz dakiguna; alde batetik, eleberrietan kontatu nahi izan diguna; bestetik, egunkarietan agertu dena: depresiorako joera duela, psicoanalisiaren egin zuela, fedea eta agnostizismoa tartekatuta dituela...

Ama, Hélène Carrère D'Encausse (1929) du, politikaria eta historiagilea, Errusiako kulturaren aditua eta jakituna, Frantziako Akademiako kidea, 1990tik aurrera. Hortaz, Carrèrek duen Errusiarekiko lotura: *Errusiar eleberririk* (2008) eta *Limonov* (2011) horren eredu dira. *Erresuma-n* (2014) bizi izan zuen fede konbertsio prozesua jarri zuen mahai gainean, Jainkoarekiko harremana, kristautasunaren sorreraren historia- inguruko espekulazioarekin batera, ebanjelioaren arteko kontraesanetatik abiatuta.

Inork baino hobeto nahasi ditu Carrèrek, nobelagintzarako bidean, biografia, autofikzioa eta kazetaritza. Elkarrizketetan esan ohi du ez zaiola gehiegi gustatzen eleberria kontzeptu moduan, hartu duen norabidea, generoarekin etortzen diren balditzak direla eta. Berak egiten duena ez dela bakarrik fikzioa, fikzioa balitz bezala idatzita badago ere.

1983ko *L'ami de jaguar* obrarekin debutatu zuenetik, inkonformismoa izan du *leitmotiv* Carrèrek. Eta originaltasuna.



Debutatu zuenetik, inkonformismoa izan du 'leitmotiv' Carrèrek. Eta originaltasuna

ak nabariak dira, baina lehenengoak gauzen testigantza leiala ematen zuen, era amoralean, hotzenez, narrazioaren parte hartu gabe, hirugarren pertsona bat hautatuz; Carrère, aldiz, ez da inoiz idazten duenatik ezabatzen eta lehenengo pertsonaren bitartez ekartzeko du istorioa, lantzean indartzeko. Biografia, lantzean behin, era zuzenean ukitu du, esate baterako, Werner Herzog-i edo Philip K. Dick-i buruzko ikerketetan.

Literatura gizartearen eta kulturaren ez dauden egia batzuk aurkitzeko balio zaito Carrèreri, eta aurkitzen ez baditu, sortzeko beharrez jartzen da. Denona dena kausa pertsonala bihurtzen du. *Yoga-n* (Anagrama, 2021) berriro ere eztabaidatu, dibertigarri, krudel eta zintzo aurkeztu da, eta inoiz baino gehiago da Carrère, osotasunean, eta ez liburuaren zantzarako pertsonaia, zehaztugabea, misteriozkoa. Idazle bezala baldintza bakarra jartzen dio bere buruari: ahalegin saihestuzin bat, hasierahasieratik bene-benetakoa izateko.

1986ko *Bibotea-n* huskeria txiki batetik paranoia erraldoi bat eraiki zuen. Nazioarteko ospea *Aurkaria*-rekin heldu zitzaion 2000.ean, bere bizitza osoa gezur handi batean ardatzu zuen gizonaren zorigaitz familiarra. Zirrara eragin dezaketen gaiez

baliatu da maiz, jasotako gertakariak eta pertsonaia historikoa erabiliz, literaturaren baitara heltzeko. "Istoria banekin. Egia ez", idatzi zuen behin Carlos Fuentesek. Nork erabakitzen du zer den errealtatea, zer, sinetsgarria literaturan eta mun-

duan? Carrèrek ez du objektibitatean sinesten –bere literatura bizitzatik hartutako elementuen ingida egon arren–, ezin du errealtate bat erakutsi aurretik bereganatu ez badu.

Truman Capoteren alboan (maisutzat duena), paralelismo-